

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2018ko martxoaren 13ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– **Foru dekretuak:**

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2018 Foru Dekretua, martxoaren 13koa. Onartzea nekazaritzako ustategietan inbertsioak egiteko laguntzen oinarri arautzaileak aldatzea eta laguntza horien 2018rako deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2018 Foru Dekretua, martxoaren 13koa. Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020ko Planaren baitan nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzen oinarri arautzaileak aldatzea eta laguntza horien 2018rako deialdia.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 120/2018 Erabakia, martxoaren 13koa. Onartzea Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 20ko ohiko bilkura aurreko egunera, 2108ko martxoaren 19ra alegia aldatzea.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 121/2018 Erabakia, martxoaren 13koa. Onartzea zuzeneko dirulaguntza bat eman dakiola Gasteizko Udalari, erabilera publikorako azpiegitura eta eraikuntzetako inbertsioak finantzatzeko, onartutako Hitzarmenaren baldintzen arabera.

Foru Gobernu Kontseiluaren 122/2018 Erabakia, martxoaren 13koa. Onartzea Arabako Lurralde Historikoko herriguneetako eta etxe barreiatuen aldeetan azken belaunaldiko banda zabaleko sareak hedatzeko dirulaguntzak Telefónica Móviles SAUk eta Telefónica de España SAUk eratutako ABEEari ematea, gehienez ere 2.429.929,80 euroko zenbatekoan.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 123/2018 Erabakia, martxoaren 13koa. Onartzea, TDE-TME CCXL eta Euskaltel SA aldi baterako enpresa esleipendunen alde, 2019ko urtarrilaren 1etik apirilaren 22ra telekomunikazio zerbitzuetarako kontratua gauzatzeko kreditu esleipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 124/2018 Erabakia, martxoaren 13koa. Onartzea Egon Engineering SLsozietateak abenduaren 29ko 819/2017 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsua ezestea.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 125/2018 Erabakia, martxoaren 13koa. Onartzea Gasteizko Udalak egindako eskaera, udalaren jabetzako Zabalganako "Mariturri" 6 sektoreko ES-02 lurzatiaren gainean beste azalera eskubide bat eratzeko, Lanerako Zentro bat eraikitzeko.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 126/2018 Erabakia, martxoaren 13koa. Onartzea urtarrilaren 30eko 42/2018 Erabakiaren bidez "ABERE Zerbitzu Teknikoa Kooperatiba Sozietatea"ri 2016an emandako laguntza itzultzeko prozedura bukatzea.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 127/2018 Erabakia, martxoaren 13koa. Onartzea Opacua SA enpresari "Santikurutze Kanpezuko bilketagunea eraikitzeko proiektuaren" obrak egiteko kontratua esleitzen zaiola, 556.369,71 eurotan (BEZa barne) eta 4 hileko burutzapen epearekin.